

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
94/2011	A1/2016	2016-04-12	<i>Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara</i>	<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko eta Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak</i>	<i>Ganbararen baliabide iraunkorra</i>

Ebazpena: A1/ 2016

Espedientea 94/2011

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 12a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

1 ERAKUNDEAK (NAN zk.: ----) Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako idazkiari buruz -2011ko abuztuaren 8ko sarrera-erregistroa-, zeinak hauxe baitio:

“Lehenengoa.- 2010eko irailaren 9an, 1 ERAKUNDEAK erreklamazio ekonomiko-administratibo bat jarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren aurrean Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbarak, 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldiei dagokien Ganbararen baliabide iraunkorra kontzeptuagatik, egindako 33., 106. eta 177. likidazioen aurka.

Bigarrena.- 2010eko azaroaren 27an, Auzitegiak aipatu erreklamazioa onartezin jotzea erabaki zuen, jarritako erreklamazioa aztertzeke eta ebazteko eskumenik ez daukala iritzita.

Hirugarrena.- 2010eko uztailaren 30ean, 2010/0724, 2010/0725 eta 2010/0726 erreklamazio ekonomiko-administratiboak jarri zituen Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren aurrean arestian

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
94/2011	A1/2016	2016-04-12	Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara	Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko eta Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak	Ganbararen baliabide iraunkorra

aipatu 33., 106. eta 177. likidazioen aurka eta martxoaren 10ean dagokion alegazio-idazkia aurkeztu zen haren aurrean.

Laugarrena.- 2011ko uztailaren 5ean Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak arestiko zenbakian aipatu erreklamazioei buruz emandako 29972 ebazpena jaso zen. Erreklamazioak izapidera ez onartzea erabaki zen han, haietan adierazitakoari buruz ebazteko eskumenik ez daukala iritzita.

Bestalde, zuzenbidezko oinarrietan hauxe adierazten du:

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onetsi duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 66. artikulua dioenez,

“Bat. Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai zerga itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga (edota) Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
94/2011	A1/2016	2016-04-12	<i>Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara</i>	<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko eta Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak</i>	<i>Ganbararen baliabide iraunkorra</i>

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2008ko otsailaren 11ko Epaitik ondorioztatzen denez, Estatuko auzitegi ekonomiko-administratiboen eta foru auzitegi ekonomiko-administratiboen arteko gatazken kasuetan, Arbitraje Batzordera jo behar da.

Ondorioz, kasu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren eta Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren artean dagoen eskumen-gatazka, Euskal Autonomia Erkidegoko Arbitraje Batzordeak ebatzi behar du.

Hirugarrena.- Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen Errege Dekretua) 13.3 artikuluan xedatzen duenez,

“Beste kasu batzuetan, ezein administraziok bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako hilabeteko epean bi administraziotatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergadunak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin.”

Laugarrena.- Ez Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ez Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ez dutenez euren burua kasu hau aztertzeke eskuduntzat jotzen,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
94/2011	A1/2016	2016-04-12	<i>Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara</i>	<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko eta Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak</i>	<i>Ganbararen baliabide iraunkorra</i>

ESKATZEN DA:

Idazkia eta hari atxikitako dokumentazioa aurkeztutzat jo daitezela, eta Arbitraje Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren eta Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean aurkeztutako gatazka negatiboa ebatz dezala.”

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bakarra.- Ganbararen baliabide iraunkorra ordainarazpen parafiskala zen, eta Sozietatearen gaineko Zergaren kuota likidoa oinarri hartuta zenbatesten zen, baina ez zen hura. Ekonomia Itunaren 66. artikulua Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen ditu. Orain aztertzen ari garenerako gogoan hartu behar da, artikulua horretako 1. zenbakiko a) letraren arabera, Arbitraje Batzordeak esleituta daukela Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo haien eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebazteko eginkizuna, zerga itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez...”. Hortaz, Arbitraje Batzordeak bere eginkizuna bete ahal izateko, desadostasuna itundutako zergei buruz piztu behar da. Bada, zerga horien zerrenda aztertuta Sozietateen gaineko Zerga dago baina ez Ganbararen baliabidea, ez baita Zerga hori bera.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

- 1.- 1 ERAKUNDEAK (NAN zk.: ---) aurkeztutako gatazka ezesten da.
- 2.- Jarduerak amaitu eta artxibatuko dira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Administrazio interesatuak</i>		<i>Kontzeptua</i>
94/2011	A1/2016	2016-04-12	<i>Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara</i>	<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko eta Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak</i>	<i>Ganbararen baliabide iraunkorra</i>

3.- Erabaki hau 1 ERAKUNDEAri jakinaraziko zaio.

EZ ARGITARATU